

Ostalaritza eta turismorako laguntzak martxoaren 15etik apirilaren 14ra bitarte eskatzeko aukera izanen da

Ostatuak, jatetxeak, gaueko aisialdiko establezimenduak, bidaia agentziak, ostatuak, ekitaldiak antolatzeko enpresak, turismo aktibo eta kulturalakoak eta bi sektore horiei lotutako handizkako merkataritzakoak eska ditzakete

Osteguna, 2021ko Martxoaren 4a

Astelehenean, hilak 15, Nafarroako Gobernuak turismorako laguntza berriak eskatzeko epea irekiko du. Berriki iragarri dira laguntza horiek, eta 18,5 milioi euroko aurrekontua izango dute. Apirilaren 14ra arte izango dute enpresek eskaerak egiteko aukera.

Elma Saiz Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eta Mikel Irujo Garapen Ekonomikorako kontseilariak gaur aurkeztu dituzte laguntzen deialdiaren oinarriak, azken urtean enpresek jasan behar izan dituzten gastu finko operatiboak konpentsatzeko helburuarekin; izan ere, COVID-19 pandemiak ezarritako murrizketek diru-sarrerak sortzeko gaitasuna mugatu dute. Deialdi berriak zenbait berrikuntza izango ditu urte amaieran kaleratutakoarekin alderatuta. Orduan, guztira 2.074 enpresa izan ziren onuradun, 13,5 milioi euro emanez.

Ostalaritza- eta turismo-jardueraren murrizketek eragindako kolektibo gehienengana iristeko, oraingoan laguntzak eska ditzaketen enpresen aukera zabaldu da. Hala, Erregimen Berezi Sinplifikatuaren bidez joan diren enpresen kasuan, jada ez da ezinbesteko baldintza izango Nafarroako Gobernuko autonomoentzako laguntzen aurreko deialdiaren onuradun izatea. Horrela, neurria balia dezaketen enpresen mota zabaltzen da. Kolektibo berrien artean sartzen dira ostalaritzari eta turismoari lotutako handizkako merkataritzan diharduten enpresak, landetxeak, apartamentu turistikoak, etxebizitza turistikoak alokatzen dituztenak eta turismo aktibo eta kulturalako enpresak.

Baldintzak eta laguntza motak

Laguntza horiek jaso ahal izateko (gutxienez 1.710 euro eta gehienez 75.000 euro), enpresek helbide fiskala eta lantokiak Nafarroan izan beharko dituzte eta 2020ko diru-sarrerak % 20 murriztu direla egiaztatu beharko dute. Laguntzaren zenbatekoa %100ekoa izango da diru-sarreraren murrizketa %70etik gorakoa bada; %90ekoa % 50etik %70era bitartekoa izan bada; eta % 80koa %20tik %50era bitartekoa bada. Laguntzak kalkulatzeko, hainbat prozedura erabiliko dira, kolektibo bakoitzaren kasuistikaren arabera. Horretarako, deialdi honetan bost laguntza-tipologia desberdin ezarri dira.

Lehenengoak iazko abenduko deialdiaren xede izan ziren jarduera guztiak jasotzen ditu eta laguntzak kategorien arabera antolatzen ditu. Hala, ostalaritza- eta turismo-jardueretan eta handizkako merkataritzan diharduten enpresen zenbatekoa kalkulatzeko (deialdiaren oinarrietan zehaztutako EJZ batzuen arabera), 2019an aitortutako BEZa hartuko da kontuan. Kasu horretan, laguntza ehuneko finko baten gainean aplikatuko da; ehuneko hori %2,39 eta %13,75 artekoa izango da eta hiru hilabeteko batez besteko diru-sarrerari aplikatuko zaie (urte horretan aitortutako diru-sarrera guztiak batu, hamabi hilabetez zatitu eta emaitza hiru aldiz biderkatu ondoren). Ehuneko hori Foru Gobernuak Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) talde bakoitzean enpresek egiten duten gastu finkoa (jarduerarik izan edo ez) zenbatzeko egindako kalkulua da eta laguntza horiekin estali nahi den gastua da.

Bidaia-agentzien kasuan, kalkulua egiteko, sozietateen gaineko zerga hartuko da kontuan, PFEZean edo errentak esleitzeko araubidean dauden erakundeen urteko aitorpenean, dagokionaren arabera. Horretarako, hamar hilabeteko batez besteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan (diru-sarreraren guztizkoa batuz eta hamarrekin zatituz, gero hamarrekin biderkatzeko). Kopuru horri % 3,11ko portzentajea aplikatuko zaio laguntzaren zenbatekoa lortzeko.

Gaueko aisialdian aritzen diren enpresetan, BEZean aitortutako 2019ko diru-sarrerak hartuko dira kontuan, baina, ostalaritzako gainerako establezimenduetan ez bezala, bost hilabeteko batez besteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan (bolumena, guztira, hamabi eta bost artean biderkatuta). Kopuru horri % 8,12ko gastua aplikatuko zaio.

Hiru kasu horietan, laguntzak 1.710 eta 75.000 euro artekoak izan daitezke, aitortutako diru-sarreraren beherakadaren arabera.

Bestalde, BEZaren zerga-ordainketa Erregimen Berezi Sinplifikatuaren bidez egiten duten enpresek 1.710 euroko laguntza bakarra jasoko dute, abenduko laguntzak jasotzeko aukera izan bazuten; eta 4.560 eurokoa, ezin izan bazuten.

Lau tipologia gehiago

Horiez gain, ostalaritzarekin eta turismoarekin lotutako handizkako merkataritza-jardueretarako eta zerbitzuetarako laguntzak ere aurreikusten ditu deialdiak, abenduko deialdian jaso ez zirenak. Horien artean haragia, esnekiak, ardoak eta arrainak handizka saltzen dituzten enpresak daude, baita elikagaiak ere. Kasu horietan, Gobernuak ezarritako gastu finkoaren ehunekoa %2,39koa da.

2020an deitutako laguntzak jasotzeko aukerarik izan ez zutenek, orain bi fase ezarri dira. Lehenengoan, diru-sarreraren murrizketa kalkulatu da 2019ko bost hilabete kontuan hartuta, urteko lehen hiru hiruhilekoei dagokienez (urtarriletik irailera bitarteko diru-sarrerak kalkulatu dira, bederatzi zatitan banatzen dira eta bost aldiz biderkatzen da). Bigarren fasean, hiru hilabete bategi besteko diru-sarrerak hartuko dira erreferentziatuta (horretarako, urte osoko diru-sarrerak kalkulatu dira, zati hamabi eta bider hiru eginda).

Diru-sarreraren murrizketa %20tik gorakoa izan bada, enpresa eskatzaileek gutxienez 2.850 euroko laguntzak jaso ahal izango dituzte 1. fasean, 1.710 eurokoak 2. fasean eta 75.000 eurokoak gehienez.

Gainera, deialdi honen berrikuntza gisa, 4.560 euroko zenbateko finkoa ezarri da turismo aktibo eta kultureko eta landetxeak, apartamentuak eta etxebizitza turistikoak alokatzeko enpresentzat, betiere, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatuta badaude. Kopuru hori bera erabiliko da Ekonomia Jardueren Erregistroan dagokion epigrafean agertzen diren kongresuak antolatzen dituzten enpresentzat, kasu askotan erabilera anitzeko aretoak kudeatzen dituztenentzat.

Hiru mota horietako enpresak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako edo inskribatutakoen kasuan, laguntzaren zenbatekoa 1.710 eurokoa izango da.

Laguntzak banakako ebaluazioaren bidez emango dira, eskabideak jaso diren hurrenkeraren arabera eta ebaluatu eta aldeko ebazpena eman ahala ordainduko dira. Enpresa interesdunek modu telematikoan formalizatu beharko dute eskabidea, horretarako gaitutako [izapide-fitxaren](#) bidez.

Onuradun gertatzen diren enpresek gutxienez aurtengo maiatzaren 31ra arte eutsi beharko diote enpresaren jarduerari.

📌 Ostalaritza eta turismorako laguntzak martxoaren 15etik apirilaren 14ra bitarte eskatzeko aukera izanen da